



**Arartekoaren 2015R-673-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 15koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio *Zornotzako Lehen harrerako zentroko* instalazioak hobetu ditzala. Halaber, babesik gabeko adingabeak hartzeko Bizkaian dauden egoitza-harrerako baliabideetan bizi diren bakarrik dauden adingabe atzerritarrak adin-nagusitasunera heltzen direnean emantzipazio-programetan sartzeko irizpideak berrikus ditzala gomendatzen zaio.**

### Aurrekariak

**1. *Jarduera markoa: babesgabetasun egoeran dauden haurrei eta nerabeei arreta emateko baliabideetarako bisita plana.***

Zaurgarritasun handiko egoeran dauden haurren sektoreei lehentasunezko arreta emateak, horixe baita Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren lan ildoetako bat, hainbat tresnaren bidez jorratzen den ezagutza eskatzen du, hau da, errealitate horien ezagutza hurbila behar du. Programetarako, zerbitzuetarako eta baliabideetarako ikuskapen-bisitak egitea da tresna horietako bat. Babesgabe dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen eremuan, Euskadiko egoitza baliabideen sareko hainbat programetara bisitak egiten dihardu bulego horrek urtez urte, babesgabetasun egoeran dauden haurrei eta nerabeei ematen zaien arreta ulertzeko eta horren kalitatea egiaztatzeko asmoz, eta, azken batean, dauzkaten eskubideak egoki erabiltzen direla egiaztatzeko xedez.

2015erako aurreikusitako bisita planean, premiazko harrera programaren gainean jarri da interesa, eta, zehazkiago, programa hori nerabeekin burutzen duten egoitza harreraren gainean. Hala, ez da aurreikusi premiazko harrerarako gordetako lekua duten harrera pisuetara bisitarik egitea, ez eta Arabako 12 urtetik beherako haurrentzako premiazko harrera zentrorra bisita egitea ere. Baliabide horiek<sup>1</sup> arautzeko dekretuan dago aurreikusita harrera pisuen aipatu formula, eta Bizkaian eta Gipuzkoan dago antolatuta. Honakoak dira planean txertatutako zentroak:

- Bideberria, Arabako lurraldean lagunduta ez dauden atzerritar adingabeak lehen aldiz hartzeko zentroa.
- Ibaia, 12tik 18 urtera bitarteko nerabeak, familia erreferenteak dituztenak, premiaz hartzeko zentroa, Arabako lurraldean hori ere.
- Zornotza, Bizkaiko lurraldean lagunduta ez dauden atzerritar adingabeak lehen aldiz hartzeko zentroa.

---

<sup>1</sup> Gizarte babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako egoitza harrera baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua. 7.4. artikulua: 4.– “*Premiazko harrera-programa berariazko eta bereziki helburu horretara bideratutako egoitza-harrerako baliabide batean ez ezik Lurralde Historiko bakoitzeko egoitza-sare osoan premiazko berariazko plazak prestatuta ere aplikatu ahal izango da.*”



- Uba, Gipuzkoako lurraldean lagunduta ez dauden atzerritar adingabeak lehen aldiz hartzeko zentroa.

## 2. ***Bisitan behatutako eta lortutako informazioa.***

Ekainaren 3an, Haur eta Nerabeen Bulegoko langileek, aurretik jakinarazi gabe egin zuten bisita **Zornotzako Lehen harrerako zentrorra**. Langileek instalazioak bisitatzeaz gain, dokumentazioa bildu zuten eta hitz egin zuten zentroko arduradunekin, lantaldeko beste kide batzuekin eta zentroan bizi diren gazte batzuekin. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Adingabeen Zerbitzuko arduradunekin osatu eta alderatu zen informazio hori.

Zentroak 30 leku ditu eta Landalan elkarteak kudeatzen du. 2005ean, beste udalerrri batean (Berriz) eman zion hasiera bere jardunari, baina 2006az geroztik Zornotzan dago kokatuta.

2014ko jarduerari buruzko datuen arabera, sarreraren kopuruak 2007an hasitako beheranzko joerarekin jarraitzen du (2014an 209 kasu, 2006ko 474 kasuren aldean). Zentroan bizi diren gazte Marokokoak dira gehienbat (% 76,6), 15 eta 17 urte bitartekoak.

2014ko hasierara arte, zentroan sartzen ziren eta Bizkaian bizitzen jartzeko asmoa zuten 17 urtetik gorako gazteak El Vivero zentrorra eramaten ziren. Gaur egun, zentrotik bere borondatez joaten ez direnei baja ematen zaie, bai adin-nagusitasunera iristeagatik, bai Loiuko Zabaloetxe zentrorra eraman direlako. Errealitate horretan, zentroko profesionalek gero eta gehiagotan antzematen dituzte gazte horiek emantzipatzeko izaten dituzten zailtasunak, eta horixe da langile-taldeak aipatu duen kezka nagusienetako bat.

**Eraikina**, antzinako mendi-aterpetxea, Bizkaiko Foru Aldundiarena da. Eraikin nagusi batek –bulegoak, sukaldea, jantokia, logelak eta komunak bertan daude– eta aldameneko eraikin batzuek osatzen dute zentroa. Horietako batean, bainugelak eta dutxak daude, beste batean – ikasgelak eta garbitegia; gainerakoak, berriz, biltegi eta/edo aldagela gisa erabiltzen dira. Espazioen zati handi batean ezin da sartu.

Bisita egin denean, zentroan 38 gazte bizi dira, hortaz, saletako bat logela gisa erabiltzeko prestatu da. Logeletan ohatzeak baino ez daude: txikienetan 8 ohe eta handienetan – 12. Esan digutenez, adingabe asko heltzen zenean, 60 lagunetik gora bizi ziren zentroan. Horretaz gain, badago armairu txikiak dituen leku bat, gazteek erabilera arrunteko gauzak gorde ahal izateko. Gainerako gauzak horretarako prestatuta dagoen biltegian gordetzen dira.

Hezitzaile-taldearen bulegoa beste zentro batzuetan bezala dago antolatuta: langileei oharrak uzteko gunea, familiakoen bisitak, jarduerak programatzeko gunea...; gazteen armairuak; giltzapean gorde behar diren sendagaiak eta





banakako medikazioa, botika-kutxa. Gazteak ezin daitezke bulegoan sartu langileen baimenik gabe.

Instalazioak mantentzeko zailtasunak aipatu dituzte, batez ere, logeletako bainugeletan (usainak, garbitasunik eza...), arazoak logeletako ateekin (dagoeneko zenbait mota probatu dituzte), eta eraikinaren egitura antzemandako hezetasun-arazoak.

Sukaldea catering-zerbitzuak ekartzen dituen **bazkariak** berotzeko eta prestatzeko erabiltzen da. Beste aukera batzuk probatu ondoren, iritzi ona dute zerbitzuaren inguruan (kalitate ona eta beste aukerak baino erosoagoa). Kontuan hartzen dituzte gazteen iradokizunak menuei dagokienez. Hezitzaile batzuek gazteekin batera jan ohi dute, baina beste batzuek nahiago dute hezitzaileekin baino ez jan. Langile bakoitzak erabakitzen du.

Jantokia den gela handia egongelatzat erabiltzen da, aisialdirako, jarduerak egiteko, baita bilerak egiteko ere, langileen kopurua dela eta, beste espazioen edukiera nahikoa ez bada.

Aldameneko eraikinean dauden eta kanpotik sarbidea duten dutxak garbi egon arren, narriatuta daude. Dutxa-kabinek ez dute aterik, eta badirudi toki batzuetan konponketak egin direla, bertan falta baita azuleju-estaldura. Ez dago berokuntzako sistematik.

Gazteak beraiek arduratzen dira guztientzako eremuen eguneroko **garbiketaz**. Bisitaren egunean zentroa garbi zegoen.

Zentroa *Lehen harrerako zentroa* du izena, baina foru-zerbitzuak bere dokumentuetan 'emantzipaziorako prestakuntza-zentroa' deitzen dio. Horrela gertatzen da, zentroak Bizkaira heltzen diren bakarrik dauden adingabe atzerritar guztiei berehalako arreta ematen badie ere, bertan lantzen ari den orientazio nagusia emantzipaziorako prestakuntza delako. Zentroaren funtzionamenduan ikusi ahal izan dugunez, esan daiteke emantzipaziorako prestatzen duen zentro bat dela, premiazko harrerako leku libreak dituen, eta leku horiek ez direla mugatuak, behar direnak baizik. Hortaz, ez dauka heldu berriak diren gazteak atsedena hartzeko eta indarrak berritzeko behar den denboraz harago doan programa berezirik.

Elkarrizketatu ditugun langileen iritziak, oso garrantzitsua da gazteek izaten dituzten itxaropen handienei lehenbailehen erantzutea: izan ere, haien administrazio-egoera erregularizatu eta lan egin nahi dute, edo behintzat, etorkizunean lan egin ahal izateko prestatzen hasi. Hori dela eta, heldu eta hurrengo egunean hasten dira gazteak zentroan programatuta dauden jardueretan parte hartzen: garbiketa-lanetan, goizeko prestakuntza-jardueretan (elekttrizitate-, lorezaintza eta igeltserotza-tailerrak), zentroko egitekoetan, arratsaldean egiten diren prestakuntza-jardueretan (ikasgela, gizarte-trebetasunak, kirola).





Esan bezala, emantzipaziorako prestatzea da zentroaren xede nagusia, hortaz, beste helburu guztiak, oro har, horren inguruan zehaztuta daude. Hori dela eta, foru aldundiak zentroan bizi diren gazteentzat ezarritako irizpide orokorra hauxe da: zentrotik kanpo eskolaratzea edo prestakuntza-jardueretan parte hartzea. Alabaina, hori lurraldean geratzeko asmoarekin heldu diren gazteen kasuetan baino ezin da egin, esan behar baita Zornotzako zentrorra heltzen direnen ehuneko handia iritsi eta egun batzuetara euren borondatez joaten direla zentrotik (2014an baliabide-sarea utzi zuten gazteen % 59,2). Zentroko langileen arabera, borondatez joateko arazoak izan daitezke: Zornotzako zentroa beste toki batera joan baino lehen aldi baterako egoitza izatea, edo zentroaren izaera gazteak espero duen bezalakoa ez izatea (*"lehen egunetik, adingabeari konpromisoa eta ahalegin pertsonala eskatzen zitzaien, eta eskakizun horiek eboluzionatuz zihoazen, gaztea eboluzionatzen zen heinean"*<sup>1</sup> – lehen egunetik ikasten hasi beharra, irteerak kontrolatzea, zentroan lan egin beharra...).

Edonola ere, azken aldian, areagotu egin dira zentrotik kanpo garatzen diren formakuntza-programetan matrikulatzeko zailtasunak. Zentroko langileek aipatzen duten arazo nagusienetako bat da. *Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko* (hezkuntza sisteman) *abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikotik* eratorri diren, alde batetik, Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programen desagertzea, eta bestaldetik, Oinarrizko Lanbide Heziketaren ezarpena, baita enplegurako trebakuntza jardueretara sartzeko ondoriozko ezintasuna ere (enplegu sisteman), behar bezala egiaztatutako lanbide-heziketa edukitzeko oztopo handiak izaten ari dira, prestakuntza-maila dena delakoa izanda ere, eta, horrenbestez, lanean hasteko eta gizarteratzeko baliagarria den prestakuntza edukitzeko oztopo bihurtzen dira. Izan ere, 2014an prestakuntza jaso zuten, hau da, borondatez, adin-nagusitasunagatik edo zentroz aldatzeagatik zentrotik irten ez ziren gazte guztien % 37 baino ez zegoen matrikulatuta zentrotik kanpo, eta gainerakoek zentroan antolatutako tailerretan eta prestakuntza-jardueretan parte hartzen zuten.

Arazo horri konponbideak aurkitze aldera Adingabeen Zerbitzuak burutu dituen kudeaketa batzuen berri izan dugu. Zehazki, Osabidezko Hezkuntzako Partzuergoan planteatu da arazoa. Organo horretan, Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzaz gain, sail bereko Lanbide Heziketako Zuzendaritzak parte hartzen du. Hala ere, ez da egon jarrera onik Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Sailaren partetik, horrek eusten baitio lanbide-heziketari prestigioa ematearen alde egindako apustuari. Azken horretan kontuan hartzen dira jarduera-sektore eta merkatu-nitxo berritzaileak eta teknologiaren aldetik aurreratuak direnak, kualifikazio bereziak eskatzen dituzten horietakoak. Gazte horientzat, berriz, oso zaila izango da halako kalifikazioak lortzea, duten hasiera-maila dela eta.

---

<sup>1</sup> Bakarrik dauden adingabe atzeritarrentzako Zornotzako lehen harrerako zentroari buruzko hezkuntza-proiektua.



Dokumentazioa lortzeko izapideei dagokienez, ikusi dugunetik eta galdetutako gazteek erantzun digunetik ondorioztatu dugu foru zerbitzuak ezarritako protokoloa zuzen dabilela. Kudeaketaz arduratzen den Bizgarri elkarteko langileak hurbiltzen dira zentrora heldu berri diren gazteei informazioa emateko, eta bakoitzarekin banakako elkarrizketak izaten dituzte bere kasua aztertu, dagokion informazioa eman eta laguntzeko.

Azken hilabeteotan antzeman dute Marokoko Kontsulatuak mantsotu egin duela pasaporteak egiteko prozesua – lehen aipatu bezala, zentroko gazte askoren jatorrizko herrialdea da Maroko. Dirudienez, lehen baino arreta handiagoarekin egiaztatu nahi dute pasaportea emateko eskatzen diren dokumentu guztien egiazkotasuna dokumentua egin den tokian, eta hori positiboa da. Alabaina, prozesua hainbeste luzatzen da, non zentroa (eta beraz, adingabeak babesteko sistema) dokumentuak jaso gabe utzi behar duten gazteen kopurua areagotzen den, eta ondorioz, gero eta larriagoa da gazte horien ahultasun-egoera.

**Hezitzaile-talde** osoa 20 pertsonak osatzen dute. Langile guztiak hezitzaile modura kontratatuak dira, nahiz eta ardura desberdinak izan (tailerrak, ikasgelak, kanpoko prestakuntza, kudeaketa ekonomikoa, mantentze-lanak eta biltegia). Hezkuntza-zereginak (adibidez, tutorearenak) gauzatzeko eskatzen den kualifikazioak, hala ere, ez ditu jarraitzen egoitza-baliabideak arautzen dituen dekretuan ezarritako irizpideak. Hezkuntza-proiektuan irakur dezakegu, hitzez hitz: *“Komenigarria da gizarte-hezkuntzan diplomaduna, animatzaile soziokulturala, gizarteratzean goi mailako tituluduna edo aisialdiko monitorez izatea”*. Gizarte-hezkuntza diploma edo gradua izatea nahitaez eskatzen da Programaren zuzendari nagusiaren funtzioak betetzeko.

Zentroak lau arduradun ditu eta goizeko eta gaueko txandetan lan egiten dute (bi arduradun egoten dira beti). Hezitzaileek bikoteak osatzen dituzte lana egiteko eta zentroan egoteko denbora bikotekidearekin antolatzen dute, gazte bakoitzak bere erreferentziako tutorerik gabe luze egon ez dadin. Gazteekin izan dugun elkarrizketan egiaztatu dugu ezagutzen dutela erreferentziako tutorea, eta pertsona hurkoa eta garrantzitsua dela beraientzat. Horretaz gain, zentroko dokumentazioa aztertzean ikusi dugu banakako asmo hezitzaileak badaudela, eta horien jarraipen zehatza eta xehetasunez betea egiten ari dela.

Hezitzaile guztiek txandaka –goizez edo arratsaldez– egiten dute lan, batek izan ezik; azken horrek maisu-maistra ikasketak bukatu ditu eta ikasgelaz arduratzen da, arratsaldez. Langile guztiek parte hartzen dute lantaldeko bileretan. Ikusten denez, talde motibatua, kohesioz lan egiten duena eta egonkorra da. Ordezkapen puntualak alde batera utzita, azken aldiz duela 4 edo 5 urte sartu zen lankide berri bat taldean.

Zaintzaile bat beti egoten da zentroan (txandaka lan egiten dute), Zornotzako udalerrian zentroa ireki zutenean Udalak eskatuta. Ezarritako jarraibidearen arabera, zaintzaileak ez du zentroko bizitzan esku hartzen, hezitzaileetako





batek bere laguntza eskatzen ez badu behintzat. Horretan, ez dute arazorik izan.

Elkarrizketatuen arabera, egun, lasaitasun-egoera dago zentroan, gatazka larririk gabe. Gogoan dute lehen hilabeteetan asalduzko garaia bizi zutela, instalazioak ireki zirenean (2006aren aldean). Garai hartan, gazte asko zegoen zentroan, askotan aldatzen ziren, hezitzaileak eskarmentu gutxiak ziren, lantaldea kohesionatu gabe, etab. Zentroa egokitzeko hasierako denboraldi hori bukatuta, egonkortasun-etapa bat heldu da (dagoeneko, 2008an); gatazka larriak desagertu egin dira praktikan, osasun-ohitura kaltegarriak gero eta gutxiago dira, lehen unetik prestakuntzan hasten da, inguruarekiko harremanak normalizatu egin dira eta asko hobetu da hezkuntza-ibilbideen garapena, orain lehen baino gehiago hartzen baitira kontuan gazte bakoitzaren premiak eta ibilbideak horien arabera egokitzen dira.

Denborarekin, hobetu egin dituzte –“txukundu” edo– informazioa emateko tresnak eta, oro har, horretarako euskarria. Informazioa jasoko duen pertsona beti kontuan izanik, informazio hori beharrezkoa, nahikoa eta, jakina, egokia izan dadin saiatzeko dira (behar baino informazio gehiago ez eman, baina ezer ahaztu gabe; ulergarria izan dadin).

**Koordinazio** zuzena dute erkidegoko baliabideekin. Ez da arazorik egoten gazteak errolatzeko orduan, eta eskolaratzeari dagokionez, Otxarkoagako Lanbide Heziketako Eskolarekin eta Fundación Peñascal fundazioarekin lan egin ohi dute, Hezkuntza Sailarekin arazo aipagarriak egon gabe. Osasun arloari dagokionez, harreman ona dute lehen mailako arretako zentroarekin, eta zentroari dagokion medikuak oso ondo artatzen ditu gazteak. Langileen ustez, aurreko agintaldian Osakidetza eta Gizarte Ekintza Sailaren artean sinatutako hitzarmenari esker lortu dira harreman onak. Gertuen dagoen inguruarekiko harremanak ere baketsuak dira.

Garraio publikoko sarea erraz erabil daiteke: zentroko atearen ondoan bertan badago autobus-geltoki bat eta Zornotzako erdigunerako, Durangorako edo Bilborako autobusen maiztasuna ona da (biztanle gehien dituzten hiriguneak aipatzearren). Zentroa irekita egoten da, baina gazteek badakite larunbatetan eta igandeetan baino ezin daitezkeela irten. **Aisialdiaz** gozatzeko, bakarrik joaten dira – hezitzaileen konpainiarik gabe.

### Gogoetak.

1. Zornotzako zentroan hartuta dauden gazteei ematen zaien gizarte- eta hezkuntza-arretaren **balorazio orokorra** ona da. Balorazioa egiteko, honako hauek hartu dira oinarri: erakunde honen langileek ikusitakoa, eskatutako dokumentazioaren azterketa, elkarrizketak baliabideko langileekin, bertan bizi diren gazteekin eta administrazioko arduradunekin. Bereziki azpimarratu eta



balioetsi behar dira: zentroan garatzen ari den programa, hezitzaile-taldearen kohesioa, zentroan antzemandako giroa, garbitasuna eta txukuntasuna, beste komunitate-agente batzuekin arintasunez lan egitea eta inguruarekiko harremanetan, oro har, nabaritzen den normaltasuna. Ildo horretan, oro har, egiazta genezake gutxieneko neurri batean bermatuta dagoela gazteen eskubideak zinez erabiltzea, eskubide horiek *gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuaren II. tituluko I. kapituluan*<sup>1</sup> jasota dauden moduan.

Edonola ere, badago eskubideak zinez erabiltzean sakontzea, eta horretarako, gogoeta hauetan zehazten ari diren gai eta egoera batzuk zuzendu beharko lirateke.

2. **Instalazioak**, oro har, oso garbi daude eta nabaritzen da ahaleginak egiten ari direla ondo zainduak eta atseginak izateko; hala ere, asko erabili direla nabaritzen zaie eta kasu batzuetan narriatuta daude. Honako hauek konpondu beharko lirateke: logeletako batean hezetasun-arazo nabarmenak; dutxak kanpoaldean, berokuntza-sistemarik gabe eta nekez onar daitezkeen baldintzetan; dutxa-kabinek ez dute aterik, beraz, ez dago intimitaterako aukerarik; logela batzuetan gauzak pilatuta daude.

Azken urteotan egon diren aurrekontu-mugen ondoriozko arazo ekonomikoek, instalazioak hobetzeko beharrezkoak diren lanak ez egiteko aitzakia gisa erabiliak, ez dute betiko eta aldatu ezinezko arrazoi izan behar. Aitzitik, azaldutako arazoak konpontzeko premiak hobekuntza-plan baten parte izan beharko luke; plan horri lehentasuna eman beharko litzaioke eta apurka-apurka, neurri handiagoan edo txikiagoan, gauzatu beharko litzateke, erabil daitezkeen baliabideen arabera. Nolanahi ere, aurrera egin beharko luke planak.

3. Hezitzaileek adierazi dute gazte horiei eskaini dakizkiekeen **prestakuntza aukerak** murriztuz doazela, eta horrek pizten duen kezkarakin bat egiten dugu. Aintzat hartzen ditugu irtenbideak aurkitzeko garatutako ekimenak, hala ere, egun arte eskuratu diren emaitza eskasei begiratuta, agerikoa da bestelako aukerak bilatzen jarraitu beharko dela, eta borondateak bildu beharko direla arazoa modu osoagoan jorratzeko.

Halaber, azpimarratu behar dugu gazteei zentroan bertan eskaintzen zaien prestakuntzaren garrantzia: alde batetik, garrantzitsua da denbora egituratzeko (horrek eragin positiboa izaten baitu gazteen egitura psikologikoan), eta bestaldetik, prestakuntza horrek lanbiderako edo lanbidea izan aurretiko gaitasun batzuk ekartzen dizkie. Aurrera egiteko bide bat, eta

---

<sup>1</sup> Duintasunerako eskubidea (14. artikulua); pribatutasunerako eskubidea (15. artikulua); konfidentziasunerako eskubidea (16. artikulua); informaziorako eskubidea (17. artikulua); premiak eta gaitasunak ebaluatzeko eskubidea (18. artikulua); banakako esku-hartze planerako eskubidea (19. artikulua); osasuna sustatzeko eta babesteko eskubidea (20. artikulua); zerbitzuaren kalitaterako eskubidea (21. artikulua); parte hartzeko eskubidea (22. artikulua); eta dituzten eskubideak zein diren jakiteko eta horiek defendatzeko eskubidea (23. artikulua).



ez bakarria, izan liteke profesionaltasun-ziurtagiri zehatz batzuen gaitasun-unitateei lotutako heziketa moduluen araberako prestakuntza diseinatzea; horrela, egindako moduluaren edo moduluen ziurtagiria, etorkizunean, "lanbide gaikuntzen aitortze, ebaluatze eta egiaztatze prozedura" baten bidez aitortzeko modukoa izango litzateke.

4. Azken gogoetak zerikusia du gazte horiek adin-nagusitasunera heltzen direnean eskaintzen zaizkien aukerekin, eta bereziki, **emantzipazio-prozesuetan** ematen zaien laguntzarekin. Egun, familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrei dagokienez, indarrean dauden irizpideak honako hauek dira: 1) babesik gabeko haurrentzako egoitza-harrerako baliabideen sarean 18 urtetik haratago ez egotea (131/2008 Dekretuak<sup>1</sup> ematen du aukera hori), kasu oso zehatz batzuetan izan ezik; 2) Gizarteratze Zerbitzuak garatzen duen *Mundutik Mundura* izeneko programan sartzeko, haur eta nerabeak babesteko zerbitzuko baliabideetan urtebetez gutxienez egotea eskatzen da. Horrek esan nahi du zentroan 17 urte baino gehiagorekin sartu ziren gazte guztiek (hau da, bertan bizi direnen ehuneko handia) zentrotik irteten direla inolako euskarririk gabe, premiak estali gabe eta laguntzarik gabe. Erakunde honen ustez, ezinbestekoa da halako laguntza ematea.

Ez dugu berriz ere errepikatuko modu zehatz eta xehetasunez *Arartekoaren 5/2013 Gomendio Orokorra, ekainaren 17koa. Bakarrik dauden adingabe/gazte etorkinen arretarako bermeak* izenburuko dokumentuan esan genuena. Gomendio horrek, bestalde, jasotzen du erakunde honek beste foro eta iritziak emateko esparru batzuetan adierazitakoa. Zera gehitu nahi dugu bakarrik: gazteak ugari eta etengabe heltzen zirenez, garai batean emantzipazio-programetan sartzeko eragozpen hura ulergarria zen agian (bai babesik gabeko haur eta nerabeen zerbitzuetan, bai gizarteratze-zerbitzuetan), bestela, ezinezkoa izango baitzen guztiei behar bezalako arreta ematea. Hala ere, egoera asko aldatu da, hortaz, sortu da aukera iraganean hartutako erabakien inguruan berriz hausnartzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

---

<sup>1</sup> 3. artikulua Hartzaileak:

2.- *Salbuespen gisa, eta zaindutako pertsonak eta Foru Aldundi eskudunak adostu ostean, adin nagusi izan aurretik babes-sareko baliabide batean bizi ziren 18 urtetik gorako gazteak izan daitezke egoitza-harrerako baliabideen erabiltzaileak emantzipazio-programaren esparruan. Gazte horiek gehienez 18 hilabetez egon ahal izango dira babes-zentroen sarean, eta muga horretatik gorako edozein luzapen behar bezala arrazoitu behar izango da pertsona bakoitzaren premia indibidualak eta egonaldi horrek, hala badagokio, baliabide berean bizi diren gainerakoengan izan lezakeen eragina kontuan hartuta*





## GOMENDIOA

- Zornotzako lehen harrerako zentroko instalazioak hobetu behar dira, batez ere, gogoeten ataleko bigarren puntuari aipatutako gaiari dagokienez. Horien artean, dutxekin zerikusia duten arazoek lehentasuna dute.
- Berriz aztertu behar dira emantzipazio-programetan sartzeko irizpideak, Bizkaian dauden egoitza-harrerako baliabideetan adin-nagusitasunera heltzen diren familia-erreferenterik gabeko atzerritar guztiei emantzipazio-programetan sartzeko aukera emateko, nahikoa den euskarri materiala zein hezitzaileen laguntza emanez.

